## HIZLARI GONBIDATUAK

**Josune Zabala (j.zabala@soziolinguistika.eus)**

*Euskara*

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako zuzendaria da 2017tik. Hauek daude bere zereginen artean:

Euskararen Aholku Batzordearen kudeaketa, eta hizkuntza ikerkuntza, bai Eusko Jaurlaritzaren eragiketa estatistiko ofizialei dagokienez, baita euskararen egoera eta bilakaerari dagokionez ere (besteak beste, honako ikerketa hauek: Inkesta Soziolinguistikoa, Mapa Soziolinguistikoa, Euskararen Aurrekontu eta Baliabide Publikoen Estatistika). Alor sozioekonomikoan, bestalde, euskararen erabilera lan munduan areagotzea (besteak beste, LanHitz diru-laguntza deialdiaren kudeaketa) eta Bikain Euskararen Kalitate Ziurtagiria. IKTen alorrari dagokionez, IKTetan euskararen erabilera sustatzeko programak (besteak beste, IKT deialdia).

Aurrekoez gain, Euskararen lurraldeetako EAEtik kanpoko herri erakundeekiko lankidetza hitzarmenak eta Estatu mailako eta nazioarteko sare eta foroetan hizkuntza aniztasunaren aldeko lankidetza hitzarmenak eta ekimenak bideratzeko ardura ere badu.

*English*

Josune Zabala is the Director of Language Research and Coordination at the Basque Government since 2017. She is in charge of management and language research at the Basque Language Advisory Council, as well as of Basque Government's official statistics, situation and development of Basque (as to say, these main research projects: Sociolinguistic Survey, Sociolinguistic Map, Basque's Public Budget and Resource Statistics). In the socioeconomical field, she is in charge of projects dealing with the use of Basque in the labor market (among others, the LanHitz grant) and Bikain Basque Language Certificate. She has also done some work in the field of ITCs to promote the use of Basque (IKT project).

Besides that, she has reached colaboration agreements outside the Basque Autonomous Community and also national and international agreements for the promotion of language diversity.

**Luis Mari Larringan (luismaria.larringan@ehu.eus)**

*Euskara*

Luis Mari Larringan Aranzabal, UPV/EHUko Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saileko Euskal Filologiako Irakasle Titular ohia.

Landu izan dituen eta lantzen jarraitzen dituen ikerketa lerro nagusiak hauek dira: Gramatikari eta hizkuntza deskripzioei perspektiba diskurtsibo-testuala ematea, hizkuntzen eta bereziki euskararen ikas/irakaskuntza helburuarekin hainbat gogoeta teoriko eta sekuentzia didaktikoen inguruko proposamen zehatzak egitea (Itziar Idiazabalekin, 2012), eta azkenik, eta mintegi honekin lotura zuzena duen euskararen ahozko erabileren azterketa diskurtsiboa landu du,

zenbait testu-genero errealetan oinarrituz. Aipagarriak dira, besteak beste, ipuin kontalaritza (Leire Diaz de Gereñorekin, 2008) solas arrunta (Alaitz Alegriarekin) debatea (Eneritz Garro, 2003, 2007, eta Itziar Idiazabalekin, 2001, 2003, 2005, 2007), edo sermoia (Arantza Ozaetarekin, 2009).

*English*

Luis Mari Larringan Aranzabal is an Emeritus Basque Philology Professor at the University of the Basque Country, UPV/EHU, in the Linguistics and Basque Studies Department.

Among his fields of expertise are: giving a discursive-textual perspective to grammar and language descriptions, theoretical thinking and specific proposals about didactic sequences with the aim of learning/teaching Basque and other languages (together with Itziar Idiazabal, 2012). And finally, he has also worked on the discursive study of oral Basque, which has a direct link with this seminar. Some of his other publications have been on story-telling (with Leire Diaz de Gereño, 2008), simple chat (with Alaitz Alegria), debate (with Eneritz Garro, 2003, 2007, and Itziar Idiazabal, 2001, 2003, 2005, 2007), or sermon (with Arantza Ozaeta, 2009).

**Padraig O'Duibhir (padraig.oduibhir@dcu.ie)**

*Euskara*

Pádraig Ó Duibhir irakaslea, Dublin City Unibertsitateko (DCU) Dekanordea da Hezkuntza Institutuan.

Irakasle hezitzaile eta Lehen Hezkuntzako zuzendari bezala, ezagutza eta esperientzia akademikoa ekartzen ditu betebehar hauetara. Bere ikerketa interesak dira: bigarren hizkuntzaren jabekuntza eta pedagogia, eta asko argitaratu du ikasle gazteei zuzendutako hizkuntza irakaskuntzan. Editorea da Journal of Immersion and Content-Based Language Education aldizkarian. Bere 2018ko monografiak, Immersion Education: Lessons from a Minority Language Context, esploratzen zuen hizkuntza jabekuntza ikasle gazteetan hizkuntza gutxituko inmertsio programa batean. Lan honen guneetako bat zen ikasleen jariotasuna errazten edo oztopatzen dituzten arazo pedagogikoak eta sozialak.

*English*

Professor Pádraig Ó Duibhir is Deputy Dean of the Dublin City University (DCU) Institute of Education.

As a teacher educator and a former primary school principal he brings a wealth of practical knowledge and academic experience to these roles. His major research interests lie in second language acquisition and pedagogy, and he has published widely on teaching languages to young learners. He is joint editor of the Journal of Immersion and Content-Based Language Education. His 2018 monograph, Immersion Education: Lessons from a Minority Language Context, explored language attainment in young learners in a minority language immersion programme. A focus of this work was the pedagogical and societal issues that impede or enhance learner fluency outcomes.

**Enlli Thomas (enlli.thomas@bangor.ac.uk)**

*Euskara*

Enlli Thomas Hezkuntza eta Giza Garapenaren Eskolako zuzendaria da. 20 urte baino gehiagoko esperientzia ikerketan. Bere interes zientifikoen artean dago elbidunen hizkuntza-jabekuntzaren psikolinguistika.

2007an Hezkuntza eta Giza Garapenaren Eskolan hasi zenetik, hainbat ikerketatan ibili da lanean, bereziki galesaren erabilera eta eskolan hartzen diren erabaki linguistikoen inguruan.

*English*

Enlli Thomas is the Head of the School of Education and Human Development. She has over 20 years of research experience. Her main research interests are related to psycholinguistic approaches to the study of bilingual language acquisition.

Since joining the School of Education and Human Development in 2007, she has led on a number of research projects, including those looking at Welsh use and linguistic choices at school.

**Argia Olçomendy (oargia@yahoo.fr)**

*Euskara*

Euskal ikasketetan doktorea da euskararen irakaskuntza ahozkoan, azterketa linguistikoa eta didaktikoan 2017tik. Gaur egun euskarako irakaslea da Bordeauz Montaigne unibertsitatean, lizentzian eta masterrean. Horrez gainera, 2.mailako irakaskuntza masterraren arduraduna da euskaraz. Bere irakasgaien artean itzulpena, euskararen didaktika eta euskal linguistika daude.

*English*

Argia Olçomendy has a PhD in Basque Studies in oral teaching, linguistic and analysis of Basque language since 2017. She is currently a lecturer at Bordeauz Montaigne University, Graduate and Master's courses. She is also involved in the coordination of the Secondary Education Teaching Master in Basque. Among her teaching subjects are translation, Basque language teaching and Basque linguistics.

**Esther Mugertza (euskolana@gmail.com)**

*Euskara*

Euskal Filologian Lizentziatua eta Hizkuntza Plangintzan Graduondoko tituluduna.

Lanbidez Euskara irakaslea eta 1992tik 1999a arte Malerrekako Mankomunitateko Euskara Teknikaria. 2000. urtetik aurrera Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuko Euskara Teknikaria eta gaur egun Nafarroako Gobernuaren Euskararen Nafar Institutua-Euskarabideko Euskara Sustatzeko atalburu.

Euskararen ahozkotasunari begira irakasleak prestatzeko Nafarroako Hezkuntza Departamentuak 2010ean sortutako ikastaroaren (Ahozko Hizkuntza Irakastea) zein webgunearen sortzailea Yolanda Olasagarrarekin elkarlanean.

*English*
Graduate in Basque Philology and in Language Planning. She teaches Basque, and she worked as a Basque language advisor in Malerreka area's local councils from 1992 to 1999. Since 2000 she is a Basque language specialist at the Department of Education of the Government of Navarre Government. She is devoted to teacher training, especially dealing with oral Basque.

**Yolanda Olasagarre (yolasaga@educacion.navarra.es)**

*Euskara*
Soziologia eta Zientzia Politikoetan Lizentziatua, Hizkuntza Plangintzan Graduondoko tituluduna, Adimen gaitasun handietan Unibertsitateko Aditu tituluduna.
Lan ibilbidea: Sakanako Mankomunitateko euskara teknikaria 13 urtez. Ondoren, Bigarren Hezkuntzako irakasle aritua Altsasuko BHIn 3 urtez. Azkeneko 12 urteotan Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroko (EIBZ) irakaslea, hau da, irakasleen prestatzailea: ikasleen ahozkoaren trebakuntzan, ikasleen hizkuntzarekiko motibazioan, adimen gaitasun handiko ikasleei arreta eskaintzean.
Euskararen ahozkotasunari begira irakasleak prestatzeko Nafarroako Hezkuntza Departamentuak 2010ean sortutako ikastaroaren (Ahozko Hizkuntza Irakastea) zein webgunearen sortzailea Esther Mugertzarekin elkarlanean.

*English*
Graduate in Sociology and Political Science, Language Planning

Professional experience: Basque specialist in Navarre's Sakana Region for 13 years. Secondary Education teacher in Altsasu for 3 years. She has been teaching oral skills for learners of Basque and language motivation at the Teaching Resource Center (EIBZ) for the last 12 years .

In terms of Basque orality, she created together with Esther Mugertza a teacher training course (Oral Language Teaching) for the Department of Education of the Government of Navarre in 2010.

**Olatz Bengoetxea (o.bengoetxea@soziolinguistika.eus)**

*Euskara*

Euskal Filologian lizentziatua eta master ikaslea UPV/EHUn. Lankidetza-beka batekin hasi zen lanean hizkuntzaren didaktikaren alorrean, lehen HIJE eta orain ELEBILAB bihurtutako ikertaldean. Euskararen erabilera sustatzeko bideratu diren zenbait programatan hartu du parte 2012 eta 2014 bitartean.

Egun Soziolinguistika Klusterrean ari da lanean, bertako Bulego Teknikoan, beste lankide batzuekin batera klusterraren helburuak, estrategiak eta proiektuak kudeatzen eta garatzen. Une

honetan, euskararen ahozko erabilera ikertzeko abian diren proiektuen arduraduna da. Proiektu horien artean daude BERBEKIN eta BERBALAPIKO, mintegi honen antolatzaileen lankidetzarekin bideratzen ari direnak. Halaber, gaiarekin lotuta, hizkuntza irakasleen prestatzaile lana egiten du.

*English*

Basque Philology Graduate and MA student at UPV/EHU. She started working with a cooperation grant in the language teaching field in the ELEBILAB research group. She has also taken part in several Basque language promotion programs between 2012 and 2014.

Nowadays she works as an assistant at the Soziolinguistika Klusterra, together with other colleagues, she manages and develops the cluster's goals, strategies and projects. She is responsible for the projects regarding research of oral Basque. Among those projects are BERBEKIN and BERBALAPIKO, which are being run with the cooperation of the organizers of this seminar. Related to this topic, she works as a Basque language teacher trainer too.